BIDASOA 2018-2023

# Bidasoa ibaiari maitasun kanta

IRENE ELORTZA GEREÑO

Arrazakeriaren kontrako borrokak zeharkatzen du Fermin Muguruza musikariaren eta zinemagilearen lana, betidanik. Zinemaldian aurkeztu zituen *Black is Beltza* proiektuen ildo nagusia ere bazena, bere erraietan sufritu izan du aspaldian, muga baten ondoan bizitzeak auzia etxe ondora ekarri dio eta. Izan ere, 2021etik, zazpi pertsona hil dira Irun eta Hendaia arteko Bidasoa ibaiko uretan itota, eta beste hiruk bizia galdu zuten Ziburun tren batek harrapatuta. Hiru urte lehenago Frantziak muga itxi eta kontrolak ezarri zituen Europako gainontzeko herrialdeetara pertsona etorkinen sarrera eragozteko. Orduz geroztik, Bidasoako muga naturalaren pasagunearen itxiera horrek sarraskia eragin du.

Muguruzak Irun inguruan politika arrazisten kontra egiten ziren mobilizazioetan parte hartzen zuenean sarritan elkartzen zen Gari Garaialde argazkilariarekin. "Harrera Sarea eta Bidasoa Etorkinekin elkarteetako jendea ezagutzen nuen baina Gariren lanak berebiziko garrantzia zuela iruditzen zitzaidan, izan ere, gu iristen ez ginen lekuetara heltzen zen bera, eta begiak jartzen zituen han", adierazi du filmaren egileak. Egun batean, Ferminen etxeko sukaldean bilera egin zuten eta dokumentalaren ideia mahaigaineratu zion Muguruzak: "Inpotentzia izugarria sentitzen nuela eta proiektuan bere partaidetza argi ikusten nuela esan nion". Garaialdek ez zuen zalantza izpirik, egin beharra zegoen.


Fermin Muguruza musikari eta zinemagilea. GARI GARAIALDE

Dokumentalak, ibaiaren bi aldeetako hainbat ekintzaileri ahotsa eta aurpegia ematen die, hala nola, Harrera Sarea eta Bidasoa elkarteetako ordezkariei, Aintzane Lasarteri (euskal errefuxiatuen alaba) eta Anaitze Agirreri. "SOS Arrazakeriako kide eta unibertsitateko irakasle Anaitzek sekulako diskurtsoa du eta dokumentalerako gakoa zela ikusi nuen", dio Muguruzak, "behin eta berriz esan zigun mezu positiboa eman beharra zegoela". Eta, batik bat, nondik ez jo utzi zien argi eta garbi.

**Proiektura bildutakoak**

Harrera Sareako kide Alaine Arabururen laguntzarekin joan ziren dokumentazio lana osatzen. Bien bitartean, bestelako protagonistak ezagutzen eta proiektura biltzen jarraitu zuen Fermin Muguruzak. Boli Kostatik etorritako eta Irungo bizilagun den Essoh Romeorekin kontaktatu zuen eta baita dantzaren bidez ahaldundu den Pilar "Janela" gaztea ere. "Bost pertsonaia nituen, beraz, baina, bat batean, bilera batean nengoela, Amets San Millan gaztea iritsi zen, bere bizikletarekin, mugan sufritu zuen jazarpen esperientzia bat haserre biziz kontatzen", dio egileak, "dokumentalean sartu zitzaidan eta narratzaile lana eman nion". Berak josten du dokumentalean kontatzen den errealitatea.

Baina, denen gainetik, bizia galdu duten hamar pertsona etorkinen inguruan taxutzen da filma, lanaren bizkarrezurra haiek baitira; izena, adina, egindako bidaia eta ametsak, hildako kopuru hotzen atzean dagoen istorioa eta pertsonak ezagutuz, tragedia testuinguruan jarri eta Bidasoa ibaiari egozten dioten maltzurkeria uxatu nahi zuen egileak. "Hedabideek 'Bidasoa, hiltzen duen ibaia' esaten badute ere, ibaiak ez gaitu hiltzen, ez gaitu banatzen, elkartu egiten gaitu; Bidasoaren bi ertzek besarkatzen zaituzte, ibaia bizitza da", adierazi du. Bidasoaren bazter horiek ondo ezagutzen dituen Gari Garaialde argazkilariak dioenez, "ibaian hiltzen dira baina ez da ibaiaren ardura, hori erakustea oso garrantzitsua da". Dokumentalarekin ideia hori neutralizatzeko asmoa eta itxaropena du egileak.




Drone bidez hartutako irudiei esker islatu nahi izan du Muguruzak Bidasoaldeko eremuaren edertasuna eta batasuna. "Zerbait ederra egin behar genuen, dokumentalaren bidez Bidasoa ibaiari amodiozko kanta bat egin nahi genion, bizitza delako", azaldu du zinemagileak. Musikari ere berebiziko garrantzia eman dio egileak, musikaria den aldetik. Bidasoaldeko musikari askoren kolaborazioa lortu du Muguruzak filmaren soinu banda osatzerakoan. Petti, Sonakay, Bad Sound System edo Dut bezalako musikarien ekarpenez gain, Willis Drummonden *Bidasoa* abestiak pisu handia hartzen du filmean, gaiari estuki lotutako hitzak baititu.

Amorrutik eta maitasunetik sortutako proiektua da *Bidasoa 2018-2023*, epelkeriarik gabekoa eta gauzak argi eta garbi esateko premia larritik jaiotakoa. "Anaitze Agirrek dokumentalean dioena ez da orain arte inon entzun: Gizateriaren kontrako krimenak dira hauek", dio Mugururak, "hemen politika arrazistek hiltzen dute, ez ibaiak".

JON PAGOLA

# Fermín Muguruza, cuatro décadas en la línea del frente

**1. Mosku, con K.**

Nacer al borde de la frontera forja el carácter. En el caso de Fermín Muguruza (Irun, 1963), ha desarrollado además un espíritu combativo en el punto neurálgico de la izquierda independentista en la segunda ciudad de Gipuzkoa. El músico, cineasta y activista político vive en el barrio Ama Xantalen, conocido popularmente como Mosku. La plaza Urdanibia de Mosku es la particular plaza Roja de Irun. Para lo bueno y para lo malo la zona ha cambiado en los últimos años. Bastante. Ha sufrido varias transformaciones urbanísticas que la hacen más habitable, pero también ha perdido el brillo de aquellas noches que latían con fuerza en los años 80 y 90. Muguruza está en su salsa en Mosku. Es su símbolo revolucionario. Un vecino más que conoce a todo el mundo, saluda y sonríe.

**2. *Irrintzia calling.***

Se ha contado muchas veces: el impacto de The Clash en el convulso País Vasco de la Transición fue gigantesco, convirtiéndose en la banda sonora de una nueva generación. Todas las crónicas sobre el rock radical vasco empiezan por el mismo sitio: velódromo de Anoeta, 2 de mayo de 1981. Fermín Muguruza acababa de cumplir dieciocho años. Se desplazó con sus amigos a San Sebastián y quedó profundamente impactado. Fue revelador. Punk, reggae y soflamas en la presentación en directo del elepé "Sandinista". El show arrancó con un aurresku y justo después vino una incendiaria versión del "London Calling". "Tras ese concierto histórico, ya nada fue igual", escribió Muguruza en Facebook. El puntapié sonoro, contracultural y político de Kortatu llegaría dos años después: *Clashtatu*.



*Bidasoa 2018-2023.*

**3. Gatito lindo.**

"Zu atrapatu arte" fue uno de esos himnos generacionales de mediados de los 80. El artista irunés escupe la vertiginosa crónica social de la época, se desgañita: "Tú, maldito burgués / nunca vas a entender nada. / Para ti lo que ocurra en la calle / siempre son problemas de los demás". El recrudecimiento de la violencia, la reconversión industrial y la plaga de la heroína modelaron su discurso a lo largo de los años. Con Negu Gorriak incluyó nuevos estilos (rap, hardcore) y se metió en varios charcos. El general de la Guardia Civil, Enrique Rodríguez Galindo, condenado a 71 años por el asesinato y detención ilegal de Lasa y Zabala, demandó al grupo por la canción "Ustelkeria". Finalmente, los integrantes de Negu Gorriak salieron absueltos. Para la posteridad queda aquel "Agur Galindo, gatito lindo" del bertsolari Jon Maia.

**4. Nuevo siglo, nuevas trabas.**

Fermín Muguruza siempre ha ido de cara. Ha formado parte de distintas listas asociadas a la izquierda abertzale; con su grupo, Negu Gorriak, participó en 1990 en la multitudinaria marcha solidaria a la cárcel de Herrera de la Mancha; impulsó la plataforma Hitzegin en apoyo al diario Egin, clausurado en 1999; tras la llegada del "aznarismo" al poder fue vetado durante una década en Madrid, Andalucía, Murcia, Valencia… Manu Chao, con quien se fue de gira en 2003, salió en su defensa. Muguruza clamó entonces: "Llevo años afirmando que estoy en contra de la violencia de ETA, pero parece que no se me hace caso, que no se me quiere creer".

**5. *Zubigilea.***

En invierno de 2016 se sembró una pequeña semilla en Mosku, Irun. Se cosió un relato fragmentado y doloroso. Se tendieron puentes dinamitados. Eduardo Madina, exdiputado socialista y víctima de ETA, entrevistó a Fermín Muguruza en una charla que primero se recogió en la revista "Jot Down" y más tarde se convirtió en un cómic: "Zubigileak / Los puentes de Moscú". En sus películas, Muguruza suele dar voz a los derrotados y las minorías. Como con su música, se asoma a la línea del frente y plasma lo que ve en Palestina, el Magreb, en la Nueva Orleans post-Katrina o en la misma frontera entre Irun y Hendaia, donde el color de la piel emerge como un factor de riesgo de mortalidad.